



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko irailaren 21a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indarduneko, aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, jakiteko zein izanen den Nafarroako Gobernuaren jarrera Nafarroako sindikatuetatik zati handi batek pairatzen duen bazterkeria dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programari buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan. Ezquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, produktu kutsagarriak isurtzearen ondorioz Ultzama ibaian karramarroen heriotza masiboa gertatu ondoren Nafarroako Gobernuak eginen duenari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (10. or.).

—Galdera, Nafarroako Pirinioko ibar eta herrien garapen orokor eta orekatua lortzeko Nafarroako Gobernuak eginen duenari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Galarreta eta Euskal Jai Alai pilotalekuetan, besteak beste, eta pilotarien elastikoetan Nafarroako turismo-sustapeneko irudia soilik gaztelaniaz erabiltzeko dauden arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Euskararen Institutuaren izenari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Urrobiko Industrialdearen zabalpena lehentasunezkatat ez jotzeko dauzkan arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroaren irudi turistikoa sustatzeko DVDA soilik gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeek kaltetutakoan aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Legearen aplikazioaren egoera zein den, zenbatekoekin eta azalpenekin, ezagutzeko, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak programaturiko turismo-bisiten alderdi batzuei buruzkoa, eta haietan Nafarroako ipar-mendebaldea ez sartzeko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, oinarriko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordinatzeko itunari buruzkoa, foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (15. or.).
- Galdera, papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasteari buruzkoa, foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik gertatzen den, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ginekologia-zerbitzuetara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako aldean zerbitzu horietara jo eta pilula ordaindu behar duen emakumearen artean, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa bereziei buruzkoa, foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren ustez azpiegiturretan arazoak edo gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa, foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak egina (17. or.).
- Galdera, euskarazko irakaskuntzaz zuzenean arduratzen den egoitza administratiboa Antolaketa, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan zerbitzua izatetik atal bihurtzeko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak egina (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde berezia sortzea eta haren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Batzorde arrunten osaera (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko senataria izendatzen duena (23. or.).
- Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eleduna aldatzea (24. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua. Indarrik gabe geldituko dira, behin-behinekoz, 2. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiak (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzekoa

Gure antolamendu juridikoan, herritarren eskubide eta askatasunak aldeztuta ahalbidetzen duen erakunde publikoetako bat da arartekoarena. Erakunde horren eginkizuna da behatzea nola jarduten

duen administrazio autonomikoen, tokikoen nahiz ente eta enpresa publikoen edo administrazio horien menpekoen, eta, era berean, herritarren eskubideak modu eraginkorragoan babestea.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena baduen arartekoaren erakundea sortzeko eta arautzeko, Konstituzioa buru duen egungo antolamendu juridikoak eta, bereziki, Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1 artikulua aitortzen baitio, arartekoaren erakundea sortu eta arautu zuen. Arartekoak harreman zuzena du Nafarroako Parlamentuarekin; eginkizun propioak ditu eta koordinatu egiten ditu Gorte Nagusiek izendatutako arartekoak dauzkan eginkizunekin, horrela ezartzen baitu apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren 12. artikulua.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ikuskatu egiten du Nafarroako Foru Komunitatearen jardueran, toki administrazioarena eta baita horien eragileena ere; beraz, arartekoak, bere kabuz edo norbaitek hala eskaturik, administrazio publikoen egintza edo ebazpenak argitzea helburu duen edozein ikerketa hasi eta horrekin jarraitu ahal du.

Edozein pertsona fisiko edo juridikoa, inongo mugarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarengana jo ahal du eta parte har dezala eskatu egintza, ebazpen eta jokabide jakin batzuk argitzen, horiek pertsona bat edo pertsona talde bat kaltetu dutenean eta Nafarroako foru edo toki administrazioan eman direnean.

Figura hau herritarrengandik gertu dagoen erakundea da, doanekoa, arina, eta kontrol-prozeduraren malgutasuna, ikerketa-metodoak eta arazoak ebazteko sistemak ditu ezaugarri nagusi.

Azken batean, legezkotasun printzipioak eta administrazio jarduketara arautzen dutenak aplikatuz, arartekoa administrazioa iristen ez den alorre-

tara irits daiteke, herritarren mesederako, eta bereziki, babesgabeenen alde.

Horregatik guztiagatik funtsezkoa da arartekoa hautatzeko prozedurak berekin ekartzea erakunde horren garrantziaren aitortzea, eta izendapenak gehiengo kualifikatua behar izatea, horrela, adostasuna lortu beharko baita eta horrek arartekoa erakundearen interesen alde erabiltzeko asmoak uxatuko baititu. Arartekoak, izan ere, herritarrak aldeztu behar ditu erakundeekin izaniko arazoetan.

Hori horrela, 2. artikulua aldatzea proposatzen dugu, halako moduz non uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen jatorrizko testuak indarra hartuko bailukeen berriro ere, eta indarrik gabe geldituko litzatekeen, beraz, 3/2005 Foru Legeak eginiko aldaketa; izan ere, aldaketa hori egin zenean, Parlamentuko gehiengo ez zegoen prest foru legearen jatorrizko testuak ezartzen zuen gehiengo kualifikatua lortzeko.

Horrenbestez, foru lege bat onestea proposatzen dugu Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua-
ren edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“2. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatuko du; sei urterako, hain zuzen. Arartekoak Parlamentura jotzen badu, Parlamentuko lehendakariaren bidez egingen du.

2. Foru Araubideko Batzordea arduratuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarekin harremanak izateaz, eta, halaber, batzorde horren ardura izanen da Osoko Bilkurari behar diren guztiak jakinaraztea.

3. Foru Araubideko Batzordeak, bere kideen hiru bostenen aldeko botoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izateko hautagaia proposatuko dio Legebiltzarraren Osoko Bilkurari.

4. Hautagaia proposatu, eta Osoko Bilkura deituko da, gutxienez, hamabost egunen buruan, bil dadin eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hauta dezan. Parlamentariaren botoen hiru bostenen gehiengoak nork lortu, hura izendatuko dute Nafarroako Foru Komunitateko ararteko.

5. Adierazi den gehiengo hori lortzen ez bada, batzordea berriz bilduko da, gehienez ere hilabeteko epean, proposamen berri bat egiteko.

6. Artikulu honetako 4. idatz-zatian adierazitako gehiengoak lortuz gero, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatuko da”

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, jakiteko zein izanen den Nafarroako Gobernuaren jarrera Nafarroako sindikatuetatik zati handi batek pairatzen duen bazterkeria dela eta.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Jabelduraren xedea da jakitea zein izanen den Nafarroako Gobernuaren jarrera Nafarroako sindikatuetatik zati handi batek pairatzen duen bazterkeria dela eta. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu diote Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuraren eztabaida dadin:

Jakina den bezala, gure erkidegoan, gaur arte, ELA eta LAB sindikatuak sistematikoki bazterturik egon dira administrazioaren organo eta kontseilu ugarian, soilik euskal sindikatu abertzaleak izateagatik. Era berean, sindikatuen ordezkaritza horrek, % 35 ingurukoak, UPNren ondoz ondoko gobernuaren erabakia dela medio, ezin izan du

parte hartu enplegu planetan. Plan horien aurrekontuetan diru kopuru oso handiak jasotzen dira, eta soilik UGT, CCOO eta CENekin izenpetuak dira.

Zalantzarik gabe, egoera hori oso urruti dago sindikatu guztiak errespetatzen dituen eta aniztasuna egoki kudeatu behar dela sendotasun osoz eskatu duen gizarte batek bere buruari ezarri beharko lizkiokeen helburuetatik.

Hala eta guztiz ere, egun Nafarroako Gobernuaren arlo honetaz arduratzen denak berriki eginiko adierazpen publikoetan, topaketa eta akordioak errazteko mekanismoak eta formulak bilatuko lituzketen moduak iragarri ordez, beste behin adierazten zuen bere asmoa zela aurreko UPNren gobernuaren ildotik jarraitzea eta gobernu-ekintza oinarritzea soilik CEN, UGT eta CCOOekin lorturiko akordioetan.

Hori guztia dela eta, parlamentu-talde honek honako jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, azaldu eta argitu dezan zein izanen den Nafarroako Gobernuaren jarrera Nafarroako sindikatuetatik zati handi batek pairatzen duen bazterkeria dela eta.

Iruñean, 2007ko irailaren 12an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programari buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programari buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa izapidetzeko onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Osasun Ministerioak iragarri du 7 eta 15 urte bitarteko haurrek bermatuta izanen dutela ahoaren urteroko azterketa, aho-hortzetako osasunaren plan berriari esker.

Zerbitzu hori ministerioak eta autonomia-erki-degoek batera finantzatzen dute. Kofinantzaketa-rako hitzarmena izenpetzea autonomia-erkidego guztiei eskainiko zaie, kontuan hartu gabe lurralde bakoitzean haurren aho-hortzetako osasunaren arloko programa eta ekintzak noraino garatuta dauden.

Nafarroan aspaldidanik bermatzen da aho-hortzetako zerbitzu hori, orain gainerako autonomia-erkidegoetan pixkanaka ezarri nahi dena.

Baina egia da, halaber, populazioaren sektore batzuetan, bereziki adimen gaixotasun baten diagnosia duten pertsonen kasuan, modu larrian pairatzen direla aho-hortzetako osasunarekin loturiko arazoak, eta ez dutela laguntza horretarako inongo estaldurarik, salbu eta ehuneko 75eko edo gehiagoko minusbaliotasuna aitortua duten pertsonen kasuan.

Dirudienez, Espainiako Gobernuak kofinantzaketarako hitzarmenak eginen ditu autonomia-erki-degoekin, osasun programei aurre egiteko. Gure ustez, une egokia da aho-hortzetako osasunaren estaldura zabaltzeko, adimeneko ezgaitasunen bat duten pertsonengana ere irits dadin.

Nafarroa aitzindaria izan daiteke eta izan behar du zerbitzu horietan: ahaleginak egin behar ditugu laguntza soziosanitarioaren arloan bikaintasuna erdiesteko. Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programei buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun zerbitzuak, minusbaliatuentzako aho-hortzetako osasunerako programaren bitartez, berma dezan Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamentuak emandako ziurtagirien arabera % 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa duen populazioarentzat hortzetarako laguntza.

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa izapidetzeko onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Zenbait udalek hala eskatu bazuten ere, Nafarroako Gobernuak, azkenean, gaztelania hutsean jarri zituen Donejakue bideko autobian (N-III zena) dauden herri izenen seinaleak.

Zehazki, Zizur Nagusiko Udalak 2003ko apirilaren 25ean eginitako bilkuran eskatu zuena izan zen herritik pasatzen den autobia-zatiko seinaleak gaztelaniaz nahiz euskaraz jartzea. Kontuan izanda, gainera, azaroaren 9ko 368/1992 Foru Dekretuak ezartzen duela Cizur Mayor izena izandako herriaren izen ofizialak Zizur Mayor eta Zizur Nagusia direla, udalaren eskariak oso dirudi arrazoizkoak.

Horrela, Nafarroako Auzitegi Nagusiko apirilaren 10eko 189/2007 epaiak azaldu zuenez, Zizur Nagusia herriaren izena adierazten duten trafikoin seinaleetan, gaztelaniazko izenaz gain, euskarazko izen ofizialak ere agertu beharko luke; epai horren aurka errekurtsioa jarria du Nafarroako Gobernuak Auzitegi Gorenean.

Euskara gure erkidegoaren berezko hizkuntzetako bat da, eta bistakoa da herritar askorentzat, euskaldunak izan ala ez, elementurik maitatuenetakoa eta kutunenetakoa dela; hori da orain arte egindako azterketa soziolinguistikoek erakusten dutena, bai Nafarroako Gobernuak eginitakoak bai udaletako euskara zerbitzuek eginitakoak.

Eleaniztasunak gero eta balio handiagoa du Mendebaldeko gizarte guztietan. Hori horrela, gure ustez, kontuan hartuta euskara hizkuntza minorizatua dela bai eta, zalantzarik gabe, kultur ondarea ere, arreta eta zaintza bereziak behar ditu, normalizazioa helburu. Gogoan izan behar da, betiere, hizkuntza, berez, pertsonaren gizarteratzeko funtsezko elementua dela, eta modu integratzailean, atseginean eta goxoan jokatu behar dela gure gizartean dauden hizkuntza-errealitateekin.

Beraz, gure ustez, ezin da herritar multzo handi bat, hizkuntza eskubideak errespetatzen ez zaizkiolako, etengabeko tentsioan eduki, eta seinaleak elebitan ez jartzeak beharrik gabeko ondoreza eragiten du. Hori horrela, era berean, ez da ona zenbait taldek behin eta berriz auzitegiak joko behar izatea euskarari buruzko ordenantzak bete daitezkeen, errepideetako seinaleetan elebitasuna errespetatu dadin eta, besterik gabe, Nafarroak berezkoa duen hizkuntzetako batekiko errespetu ziurtatua egon dadin. Hizkuntza politikaren arloan nahitaezkoa da bat etortzea, baina nahitaezkoa da, halaber, jarrera horren oinarri izatea euskarren errespetua eta sustapena administrazioaren aldetik.

Eta Gobernuak 2001eko urtarrilaren 8an hartu zuen erabakia erabiltzen denean, nahiz eta auzitegiek hori deuseztatua izan, Donejakue bideko autobiako seinaleak gaztelania hutsean jarri izana justifikatzeko, errespetu eskasa adierazten zaie gure erkidegoak dituen berezko hizkuntzetako bati eta euskaldunei nahiz euskaltzaleei.

Nafarroako Gobernuak de facto errepideetatik eremu mistoa desagerrarazi nahi izan zuen, eta gorago aipatutako epaiarekin ezbaian jartzen da errepideetako seinaleen arloan Gobernuak 2001etik hona gauzatu duen hizkuntza politika; izan ere, auzitegiek hamaikatxo aldiz ezetsi dute Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika, Euskarari buruzko Foru Legea bera oinarri hartuta.

Gure ustetan, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaia nahiko argia da eta Nafarroako Gobernuari hausnarrarazi egin behar lioke euskararen inguruan hartutako neurriei buruz. Horregatik ez dugu uste zuzena denik Gobernuak Auzitegi Gorenean errekurtsioa jartzea, ez baitaigu egokia iruditzen diru publikoa eskubideak mugatzeko gastatzea, hizkuntza eskubideak oraingo honetan.

Nafarroako Gobernuak beste kasazio errekurtsio batzuk ere jarri ditu Auzitegi Gorenean, hizkuntza gaietan Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaien kontra, elebitasun gaietan Nafarroako Gobernuaren zenbait xedapen deuseztatu edo aldatzen dituzten epaien aurka hain zuzen. Arrazobide berak aplika dakizkieke epai eta errekurtsio horiei ere.

Hori dela-eta, ondoko erabakiak hartzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Donejakue bideko autobioiko Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari atzera egin dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaiaren aurka Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioan, eta, eskaria hedatuz, elebitasunaren arloan Nafarroako Auzitegi Nagusiak emaniko epaiei aurkeztutako errekurtsio guztietan ere atzera egin dezan eskatzen dio.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari Donejakue bideko autobioiko seinaleak ordeztuko, eta errespetatuz autobio horretako seinaleetan ageri diren herrietako izen elebidunak.

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa izapidetzeko onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu diote Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Mozio honen arrazoi lehena eta nagusia da Nafarroako herritar guztientzako banaketa-justizia eta berdintasuna eskatzea.

Izan ere, eskandaluzkoa baita hemendik gutxira Iruña-Tafalla-Tutera tartea bidesariaren menpe egotea eta Iruña-Lizarran-Logroño autobidean, ordea, ordaindu beharrik ez izatea, eta Iruña-Irurtzun-Gasteiz edo Iruña-Irurtzun-Donostia autobidean zati batean ordaindu beharra. Eta Iruña-Jaka

autobidea ere doakoa izateak areagotu egingen du eskandalua. Erriberako herritarrei eta, oro har, Nafarroako herritar guztiei egiten zaien irain horrek ez du inolako justifikaziorik, ez sozialik ez ekonomikorik.

Bestalde, legeak eskaintzen duen babesa ere urratzen du nafarren arteko begi bistako bereizkuntza hori mantentzeak. Izan ere, bidesaria mantentzeko arrazoia da Garraio eta Komunikazio kontseilari Palacios jaunak eta garai hartan Audenasako lehendakari zen Jesús Aizpún jaunak estalian, nolabait, izenpetu zuten kontratu batean araututako emakidaren luzapena. Emakida aldi baterako luzatzeko kontratu horren inguruan ez zuen Parlamentuak iritzirik eman, eta gainera maila altuagoko arauak aldatzea ekarri zuen; beraz, nahiko argudio badago kontratu hori erabat deuseza dela esateko.

Hirugarrenik, Audenasak eraiki zituen tarteetan bidesaria mantentzeak ez dauka zentzurik, are gutxiago orain, behin betikoz ezarri baita Medina-celi-Tutera errepide berriari dagokion zatia bidesaririk gabeko autobidea izanen dela. Hori dela eta, agerian geratzen da bi tarte horiek direla bidesariaren menpe dauden bakarrak.

Laburbilduz, Nafarroan dagoen desberdintasuna eta Erriberako, Irurtzongo eta Nafarroako ipar-mendebaldeko herritarrei egiten zaien kaltea loturik daude, objektiboki, negozio pribatuko makro egitasmo batekin, Medinacelitik Pirinioez gaindiko autobideraino joanen dena eta bidesaripekoa izanez gero oso kaltegarria izanen dena Pirinioetako

herrietarako. Herri horiek eta Pirinioetako alde horrek komunikazio bide onak behar dituzte, baina bidesaririk gabe.

Aurreko guztia dela eta, aurrerapenak eta batez ere berdintasunezko aurrerapenak Estatuko beste toki batzuetan eta Europan dauden antzeko komunikazio bideak behar ditu, hau da, bidesaririk gabeko autobiak.

Nafarroako eskualde horiekiko eta bertako herritarrekiko egiten den desberdintasunaz gain, Iruñea eta Artederretako lotune berriaren artean dagoen autobide zatiak ere bereizkuntza larria dakar; izan ere, bide alternatiboa ez dago eskualde horretako trafikoaren errealitateara egokituta eta ez du bermatzen erabiltzaileen eta iragaten den herrietako biztanleen segurtasuna ziurtatzen. Beharrezkoa da lehenbailehen konpontzea Noain-Beriain eta Campanas artean izaten den trafiko handiak sortzen dituen arazoak, tarte hori Foru Komunitateko komunikazio bideetako puntu beltzetako bat baita.

Erabaki proposamena:

Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean.

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

F saila:
GALDERAK

Galdera, produktu kutsagarriak isurtzearen ondorioz Ultzama ibaian karramarroen heriotza masiboa gertatu ondoren Nafarroako Gobernuak eginen duenari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, produktu kutsagarriak isurtzearen ondorioz Ultzama ibaian karramarroen heriotza masiboa gertatu ondoren Nafarroako Gobernuak eginen duenari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena:

Abuztuan, Ultzama ibaian karramarroen heriotza masiboa gertatu zen, produktu kutsagarriak isurtzearen ondorioz. Horren larritasuna ikusita, eta jakinda urtero zenbait aldiz eta zenbait ibaitan errepikatzen dela, ondoko ahozko galdera egiten dut:

Zer urrats egin behar ditu Nafarroako Gobernuak zioen azalpenean aipaturiko gertakaria dela eta? Identifikatu al ditu isurketa mota eta haren arduraduna edo arduradunak? Zein zehapen neurri eta konponbide ezarri ditu Nafarroako Gobernuak arduradunentzat?

Betetzen al zituen kasuko enpresak edo ustiategiak ingurumen arauetan ezarritako neurriak? Enpresa edo ustiategi horrek dirulaguntza publikorik jaso al du? Baiezkoan, zenbatekoak? Zein kontzepturengatik?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Nafarroako Pirinioko ibar eta herrien garapen orokor eta orekatua lortzeko Nafarroako Gobernuak eginen duenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen iza-pidetzeko onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, Nafarroako Pirinioko ibar eta herrien garapen orokor eta orekatua lortzeko Nafarroako Gobernuak eginen duenari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena:

Aurreko gobernuak prestatu zuen eta legebiltzar honetan eta Nafarroako gizartearen aurrean aurkeztu zuen "Pirinioen Plana" izenez definitu zuen ekimena. Planaren prestaketa agintaldiaren bukaeran izan zenez eta oraingo arlo horretan ez denez ezer ere egin, ondoko galdera egiten dut:

Zer asmo ditu gobernu berriak Nafarroako Pirinioko ibar eta herrien garapen orokor eta orekatua lortzeko, eskualde horietan bizi den populazioa beraietan bizi ahal izan dadin eta garai batean izan zituzten jarduera eta biztanleak berreskuratu ahal izan ditzaten edo Nafarroako gainerako herri-tarrek dauzkaten zerbitzu eta eskubideak noizbait eduki ahal izan ditzaten?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Galarreta eta Euskal Jai Alai pilotalekuetan, besteak beste, eta pilotarien elastikoetan Nafarroako turismo-sustapeneko irudia soilik gaztelaniaz erabiltzeko dauden arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen iza-pidetzeko onartzea foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak egindako galdera, Galarreta eta Euskal Jai Alai pilotalekuetan, besteak beste, eta pilotarien elastikoetan Nafarroako turismo-sustapeneko irudia soilik gaztelaniaz erabiltzeko dauden arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Zergatik erabiltzen da soilik gaztelaniaz, besteak beste Hernaniko Galarreta eta Uharteko Euskal Jai Alai pilotalekuetan, bai eta pilotarien elastikoetan, Nafarroako turismo-sustapeneko irudia?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Euskararen Institutuaren izenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izaipidetzeko onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Nafarroako Euskararen Institutuaren izenari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parla-

mentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilariak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz ihardesteko.

Irailaren 10ean Nafarroako Gobernuak bere ohiko bilkuran Instituto Navarro del Vascuence / Nafarroako Euskararen Institutua sortzea erabaki du.

Zergatik erabaki du gaztelaniazko "vascuence" hitza paratzea eta ez "euskera" hainbat erakundek aholkatu dioten bezala?

Iruñean, 2007ko irailaren 13a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Urrobiko Industrialdearen zabalpena lehentasunez-kotzat ez jotzeko dauzkan arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Urrobiko Industrialdearen zabalpena lehentasunez-kotzat ez jotzeko dauzkan arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu dio Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena:

Erroibarrek, Auritzek, Luzaidek, Aezkoak eta Artzibarrek hartzen duten Nafarroako eskualdea jendez hustuen dagoenetako bat da; biztanleak etengabe galtzen ari da, jarduera ekonomikoa falta du eta desoreka handiak ditu zerbitzuetan eta azpiegituretan.

Urrobiko industrialdea da eskualdeko jarduera ekonomikoko eremu bakarra; industrialde hori, dena den, txikiegia da eta behar dituen azpiegiturek falta ditu.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zein arrazoi ditu Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak, zuzenean nahiz Nasuinsa enpresa publikoaren bitartez, Urrobiko Industrialdearen zabalpena lehentasunez-kotzat ez jotzeko? Edo, kasua bada, zabalpen horretarako behar den lurzorua zergatik ez du jartzen, beste eskualde eskotan egiten duen bezala?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Nafarroaren irudi turistikoa sustatzeko DVDA soilik gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak egindako galdera, Nafarroaren irudi turistikoa sustatzeko DVDA soilik gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

– Zein arrazoi daude Nafarroaren irudi turistikoa sustatzeko DVDA soilik gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez argitaratzeko?

– Zein arrazoi daude Nafarroako irudi turistikoa sustatzeko DVDA euskaraz ez argitaratzeko?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Legearen aplikazioaren egoera zein den, zenbatekoekin eta azalpenekin, ezagutzekoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Legearen aplikazioaren egoera zein den, zenbatekoekin eta azalpenekin, ezagutzekoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaien:

Aurtengo maiatzaren 4an eta 5ean izaniko uholdeak direla eta, Nafarroako Parlamentuak foru lege bat onetsi zuen presako izapideaz, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurri batzuk ezartzeko.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zein da foru lege horren aplikazioaren egoera? Zenbatekoak eta haien azalpen xehekatuak nahi ditugu.

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak programaturiko turismo-bisiten alderdi batzuei buruzkoa, eta haietan Nafarroako ipar-mendebaldea ez sartzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak programaturiko turismo-bisiten alderdi batzuei buruzkoa, eta haietan Nafarroako ipar-mendebaldea ez sartzeko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak irailaren 7an adierazi zuenez, irailaren 10etik aurrera Nafarroara etortzeko da 14 herrialdetan dauden Espainiako turismo bulegoetako 35 informatzaileko talde bat, bai eta Turespañako teknikari batzuk ere, foru erkidegoak dituen funtsezko erakargarri turistiko batzuk eza-gutzera, hain zuzen.

Aurreikusitako ekintzen artean bi bisita-egun programatu ziren Erriberrira, Bardeara, Iruñera,

Orreagara, Irunberriko Arroilara, Leireko monasteriora eta Xabierko Gaztelura, Nafarroako baliabide kultural eta naturalak ezagutarazteko.

Bisita horien helburua, Gobernuak berak azaldu zuenez, merkatuetan Nafarroaren sustapena erraztea zen eta informatzaile turistikoek eragin-kortasuna hobetzea.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

a) Zergatik ez da bisitetan sartu Nafarroako ipar mendebaldeko leku bakar bat ere (Baztan, Malerreka, Bidasoa, Larraun, Sakana), kontuan izanda turismorako azpiegitura eta baliabide gehien dituen eskualdeetako bat dela?

b) Eremu horiei buruzko zer informazio helarazi die Departamentuak informatzaile turistikoek?

c) Zer ekintza ari da gauzatzen Departamentua aipatutako lekuetako baliabide turistikoak ezagutarazteko?

d) Ba al dago aurreikusirik berriazko bisitarik, antzeko xede eta helbururekin, Nafarroako ipar mendebaldera?

Gai horri buruz dagoen beste edozein informazio osagarri ere jaso nahi nuke.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, oinarritzko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordintatzeko itunari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen iza-pidetzeko onartzea foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egindako galdera, oinarritzko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordintatzeko itunari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat,

honako galdera hau aurkeztu du Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Oinarritzko osasun laguntza eta laguntza espezializatua koordintatzeko 2006-2007ko itunean, eta 2004-2005ekoan ere bai, honakoa ageri da: "koordinaziorako komite teknikoaren batzorde iraunkorrrak zuzendaritzeari berariazko jarduketa-helburuak proposatuko dizkie eskaintza eta eskariaren arteko alde handiena ikusten den espezializateetarako." Hori dela-eta, hona galdera:

Gaur egun, zer dago eginda 2004-2005 itunari eta 2006-2007ko itunari dagokienez?

Iruñean, 2004ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen iza-pidetzeko onartzea foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak egindako galdera, papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maria Luisa Mangado Cortes andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galderak aurkezten dizkio Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko kontseilari andreak, idatziz erantzun ditzan:

Papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzen hasiko dela jakinda, hauxe galdetu nahi dut:

Nola eta noiz hasiko da txerto hori jartzen Nafarroako Foru Komunitatean?

Zenbat neskari jarriko zaio? Zein izanen da txertoa jartzeko prozesua?

Zenbat kostatuko du txerto bakoitzak?

Zein kontusailekin finantzatuko da kostu hori?

Iruñean, 2007ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maria Luisa Mangado Cortes

Galdera, jakiteko zergatik gertatzen den, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ginekologia-zerbitzuetara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako aldean zerbitzu horietara jo eta pilula ordaindu behar duen emakumearen artean.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen iza-pidetzeko onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, jakiteko zergatik gertatzen den, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ginekologia-zerbitzuetara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako aldean zerbitzu horietara jo eta pilula ordaindu behar duen emakumearen artean. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko frou parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egin du, idatziz erantzun daki-on.

2004ko otsailaren 11n, mozio bat eztabaidatu zen Nafarroako Parlamentuan; haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen ernalkuntzaren kontrako larrialdi-tratamendu doakoa berma zezan. Mozio horren aldeko 26 boto izan zirenez, onetsi egin zen; horrenbestez, emakume nafar guztien eskubide hori bermatu beharra dago.

Hori dela eta, galdera honi erantzuna emateko eskatzen dugu:

Zergatik gertatzen da, oraindik ere, bazterkeria Iruñeko ospitaleetako larrialdietako ginekologia-zerbitzuetara edo emakumeari laguntzeko zentrotara jo eta biharamuneko pilula dohainik jasotzen duen emakumearen eta Tuterako eta Erribera aldeko osasun zerbitzu horietara jo eta ernalkuntzaren kontrako larrialdi-tratamendua jasotzeko ordaindu egin behar duen emakumearen artean?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa bereziei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI M^a GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen iza-pidetzeko onartzea foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa bereziei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kontuan hartuz uztailaren 2an bukatu zela hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta nekazariak edo abeltzainek ordaindutako edo pairatutako kuoten itzulketa berezia eskatzeko epea, eta martxoaren 21eko 84/2007 Foru Aginduak sei hileko

epea ezartzen zuela itzulketarako, jakin nahi dugu zenbat eskari aurkeztu ziren, guztira zenbat diru egiten duten eta itzulketak noiz egingen diren; jakin nahi dugu, halaber, ea gobernuak asmoa ote duen itzulketa egiteko ezarri zen sei hileko epea iraga-

ten uzteko edo ordainketa horiek ahal bezain arin egin nahi dituen.

Iruñean, 2007ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Nafarroako Gobernuaren ustez azpiegituretan arazoak edo gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren ustez azpiegituretan arazoak edo gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Ikusita ikasturte berriaren hasieran gure erki-degoko ikastetxe askotan arazo handi eta ugariak antzeman direla, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, zer ikastetxek pairatzen dituzte aipatu gabeziak edo azpiegitura eza ikasturte hasieran? Zenbat ikasleri eragiten die arazoak? Zein dira kaltetutako zikloak eta ereduak?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, euskarazko irakaskuntzaz zuzenean arduratzen den egoitza administratiboa Antolaketaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan zerbitzua izatetik atal bihurtzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak egindako galdera, euskarazko irakaskuntzaz zuzenean arduratzen den egoitza administratiboa Antolaketaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan zerbitzua izatetik atal bihurtzeko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan.

Kontuan hartuz unibertsitatekoak ez diren mai-letako Nafarroako ikasleen % 25 inguruk euskaraz ikasten duela D ereduan, eta beste % 21ek ikasgai gisa ikasten duela euskara A ereduan, eta ikusita Hezkuntza Departamentuak bere zuzendaritza nagusien eta zerbitzuen kopurua handitu duela, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zein arrazoi izan ditu gobernuak euskarazko irakaskuntzaz zuzenean arduratzen den bulego administratiboa (ereduen jarraipena, curriculum garapena, irakasleen prestakuntza, laguntzako programak, jarduera osagarriak...) zerbitzua izatetik atal bihurtzeko, Antolaketaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren menpean, kontuan izanda, gainera, zuzendaritza horretan lehentasuna emanen zaiela atzerriko hizkuntzei eta aipatu bulego administratiboak kudeaketa-ahalmena eta autonomia finantzarioa nabarmenki galduko dituela?

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde berezia sortzea eta haren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak.

2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu eta ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde berezia sortzea.

2. Eledunen Batzarrarekin adosturik, batzorde horren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko honako arau hauek onestea:

“Lehenengoa.- Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea sortzen da. Batzorde hau berezia izanen da, eta haren aztergaiak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko herritarren bizikidetasunaren garapenarekin zerikusia duten gaiak eta gure erkidegoak munduko herrialdeekiko duen elkartasunarekin lotutako aferak.

Bigarrena.- Batzordeak aztertuko ditu Mahaiak —Eledunen Batzarrari entzun ondoren— ezartzen dizkion gaiak.

Hirugarrena.- Batzordea osatuko da batzorde arruntetarako ezarri diren parlamentarioen kopuru eta banaketa berekin.

Laugarrena.- Batzordea eratzeko bilkura Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean eginen da, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek Batzordean izanen dituzten ordezkariak izendatu ondoren. Bilkura horretan, batzordeko Mahaia hautatuko da.

Bosgarrena.- Batzordeak txosten eta irizpen gisara emanen ditu erabakiak. Horiek Mahaira eramanen dira, eta Mahaiak erabakiko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, zer prozedurari jarraikiz tramitatuko diren erabaki horiek.

Seigarrena.- Batzordeak bere eginkizunak beteko ditu Mahaiak Batzordea desegitea erabaki arte.

Zazpigarrena.- Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusi ez den guztian aplikatuko da Legebiltzarreko Erregelamenduak oro har batzorde berezietarako xedatua, eta halakorik ezean, batzorde arruntetarako xedatua.”

3. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko diote, irailaren 24eko 12:00ak baino lehenago, zein diren haiek batzordean izanen dituzten ordezkariak.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea, eta igortzea parlamentu-taldeetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Batzorde arrunten osaera.**FORU ARAUBIDEKO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Román Felones Morrás jauna (SPN)
 Lehendakariordea
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NA-BAI)
 Idazkaria
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)

BATZORDEKIDEAK

Reyes Carmona Blasco andrea (UPN)
 Carlos García Adanero jauna (UPN)
 Jesús Javier Marcotegui Ros jauna (UPN)
 Amaya Otamendi Claramunt andrea (UPN)
 Jesús Pajares Azpíroz jauna (UPN)
 José Ángel Agirrebengoa Imaz jauna (NA-BAI)
 Maiorga Ramírez Erro jauna (NA-BAI)
 Amanda Acedo Suberbiola andrea (SPN)
 Roberto Jiménez Alli jauna (SPN)
 Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

**LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA
ETA BARNE BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 Lehendakariordea
 Koldo Amezketa Díaz jauna (NA-BAI)
 Idazkaria
 José Javier Monzón Romé jauna (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Eradio Ezpeleta Iturralde jauna (UPN)
 María del Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
 Faustino León Chivite jauna (UPN)
 María Josefa Vidorreta Alfaro andrea (UPN)
 Ioseba Eceolaza Latorre jauna (NA-BAI)
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NA-BAI)
 Amanda Acedo Suberbiola andrea (SPN)
 María Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
 Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
 Reyes Carmona Blasco andrea (UPN)
 Lehendakariordea
 José Ángel Agirrebengoa Imaz jauna (NA-BAI)
 Idazkaria
 Amanda Acedo Suberbiola andrea (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Carlos García Adanero jauna (UPN)
 Faustino León Chivite jauna (UPN)
 Jesús Pajares Azpíroz jauna (UPN)
 Sergio Sayas López jauna (UPN)
 Maiorga Ramírez Erro jauna (NA-BAI)
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NA-BAI)
 Roberto Jiménez Alli jauna (SPN)
 Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
 Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

**ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA
GOBERNUKO ELEDUNAREN BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Concepción Mateo Pérez andrea (UPN)
 Lehendakariordea
 Maiorga Ramírez Erro jauna (NA-BAI)
 Idazkaria
 María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
 Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
 Carmen María González García andrea (UPN)
 José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 Txentxo Jiménez Hervás jauna (NA-BAI)
 Patxi Telletxea Ezkurra jauna (NA-BAI)
 José Luis Izco Biarge jauna (SPN)
 Roberto Jiménez Alli jauna (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
 Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Luis María Valero Erro jauna (UPN)
Lehendakariordea
Samuel Caro Sádaba jauna (SPN)
Idazkaria
Aitor Etxarri Pellejero jauna (NA-BAI)

BATZORDEKIDEAK

Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
María del Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
Faustino León Chivite jauna (UPN)
Asun Fernández
de Garaialde y Lazkano andrea (NA-BAI)
Nekane Pérez Irazábal andrea (NA-BAI)
Amanda Acedo Suberbiola andrea (SPN)
José Luis Izco Biarge jauna (SPN)
José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)
Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

HEZKUNTZA BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Patxi Telletxea Ezkurra jauna (NA-BAI)
Lehendakariordea
Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Idazkaria
José Luis Izco Biarge jauna (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Carmen María González García andrea (UPN)
Concepción Mateo Pérez andrea (UPN)
Sergio Sayas López jauna (UPN)
Paula Kasares Corrales andrea (NA-BAI)
María Luisa Mangado Cortes andrea (NA-BAI)
María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN)
Román Felones Morrás jauna (SPN)
José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)
Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

OSASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Lehendakariordea
María Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN)
Idazkaria
Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

BATZORDEKIDEAK

María del Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
Faustino León Chivite jauna (UPN)
Jesús Javier Marcotegui Ros jauna (UPN)
Sergio Sayas López jauna (UPN)
Asun Fernández
de Garaialde y Lazkano andrea (NA-BAI)
María Luisa Mangado Cortes andrea (NA-BAI)
Nekane Pérez Irazábal andrea (NA-BAI)
María Chivite Navascués andrea (SPN)
José Javier Monzón Romé jauna (SPN)
José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

**LANDA GARAPENERAKO ETA
INGURUMENEN BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
Txentxo Jiménez Hervas jauna (NA-BAI)
Lehendakariordea
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
Idazkaria
José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
María del Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
Faustino León Chivite jauna (UPN)
José Ángel Agirrebengoa Imaz jauna (NA-BAI)
Aitor Etxarri Pellejero jauna (NA-BAI)
María Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN)
José María Vázquez Royo jauna (SPN)
Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

**FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA
GIZARTE GAJETARAKO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 María Josefa Vidorreta Alfaro andrea (UPN)
 Lehendakariordea
 Asun Fernández
 de Garaialde y Lazkano andrea (NA-BAI)
 Idazkaria
 José Luis Izco Biarge jauna (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
 Faustino León Chivite jauna (UPN)
 Concepción Mateo Pérez andrea (UPN)
 Sergio Sayas López jauna (UPN)
 Ioseba Eceolaza Latorre jauna (NA-BAI)
 María Luisa Mangado Cortes andrea (NA-BAI)
 María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN)
 José Javier Monzón Romé jauna (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
 Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-
KULTURA ETA TURISMO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 María Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN)
 Lehendakariordea
 Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
 Idazkaria
 Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

BATZORDEKIDEAK

Reyes Carmona Blasco andrea (UPN)
 Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
 Carmen María González García andrea (UPN)
 Sergio Sayas López jauna (UPN)
 Aitor Etxarri Pellejero jauna (NA-BAI)
 Paula Kasares Corrales andrea (NA-BAI)
 Patxi Telletxea Ezkurra jauna (NA-BAI)
 Román Felones Morrás jauna (SPN)
 Roberto Jiménez Alli jauna (SPN)
 José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

**HERRI LAN, GARRAIO
ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Txentxo Jiménez Hervás jauna (NA-BAI)
 Lehendakariordea
 Jesús Pajares Azpíroz jauna (UPN)
 Idazkaria
 Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

BATZORDEKIDEAK

Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
 José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 Luis María Valero Erro jauna (UPN)
 María Josefa Vidorreta Alfaro andrea (UPN)
 José Ángel Agirrebengoa Imaz jauna (NA-BAI)
 Koldo Amezketa Díaz jauna (NA-BAI)
 María Chivite Navascués andrea (SPN)
 Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
 José María Vázquez Royo jauna (SPN)
 José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU
ETA ETXEBIZITZA BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 José María Vázquez Royo jauna (SPN)
 Lehendakariordea
 Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
 Idazkaria
 Maiorga Ramírez Erro jauna (NA-BAI)

BATZORDEKIDEAK

Faustino León Chivite jauna (UPN)
 Amaya Otamendi Claramunt andrea (UPN)
 Sergio Sayas López jauna (UPN)
 Luis María Valero Erro jauna (UPN)
 Ioseba Eceolaza Latorre jauna (NA-BAI)
 Txentxo Jiménez Hervás jauna (NA-BAI)
 Amanda Acedo Suberbiola andrea (SPN)
 Samuel Caro Sádaba jauna (SPN)
 José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)
 Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

**BERRIKUNTZA, ENPRESA
ETA ENPLEGU BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
Koldo Amezketa Díaz jauna (NA-BAI)
Lehendakariordea
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
Idazkaria
José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

BATZORDEKIDEAK

Reyes Carmona Blasco andrea (UPN)
Faustino León Chivite jauna (UPN)
Amaya Otamendi Claramunt andrea (UPN)
Jesús Pajares Azpíroz jauna (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
José Ángel Agirrebengoa Imaz jauna (NA-BAI)
Txentxo Jiménez Hervás jauna (NA-BAI)
María Chivite Navascués andrea (SPN)
Román Felones Morrás jauna (SPN)
Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

ERREGELAMENDU BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Elena Torres Miranda andrea (SPN)
Lehendakariordea
Jesús Javier Marcotegui Ros jauna (UPN)
Lehendakariordea
Koldo Amezketa Díaz jauna (NA-BAI)
Idazkaria
Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)
Idazkaria
José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
Carmen María González García andrea (UPN)
Faustino León Chivite jauna (UPN)
Luis María Valero Erro jauna (UPN)
Ioseba Eceolaza Latorre jauna (NA-BAI)
Maiorga Ramírez Erro jauna (NA-BAI)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NA-BAI)
Samuel Caro Sádaba jauna (SPN)
María Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN)
José Javier Monzón Romé jauna (SPN)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB)

ESKARIETARAKO BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
María Luisa Mangado Cortes andrea (NA-BAI)
Lehendakariordea
Faustino León Chivite jauna (UPN)
Idazkaria
María Chivite Navascués andrea (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Eradio Ezpeleta Iturralde jauna (UPN)
Luis María Valero Erro jauna (UPN)
Paula Kasares Corrales andrea (NA-BAI)
Patxi Telletxea Ezkurra jauna (NA-BAI)
Roberto Jiménez Alli jauna (SPN)
José María Vázquez Royo jauna (SPN)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko senataria izendatzen duena.

Nafarroako Parlamentuak, 2007ko irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Espainiako Konstituzioaren 69.5 artikularekin, Nafarroako foru erarentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12. artikularekin eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 201. artikulare-

kin bat, Francisco Javier Tuñón San Martín jauna Nafarroako Foru Komunitateko senatari izendatu du.

Iruñean, 2007ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eleduna aldatzea.

2007ko irailaren 7an aurkeztutako idazki baten bidez Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jakinarazi zuen foru parlamentari Roberto Jiménez Alli jauna izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Fernando María Puras Gil jaunaren ordez.

Iruñean, 2007ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua.

Indarrik gabe geldituko dira, behin-behinekoz, 2. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2007ko otsailaren 13an emaniko epaiaren bidez, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak deuseztat jo zuen Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduko 2.3 artikulua, bai eta 2.1 artikulua ere, aurrekoaren aurrekari, euskarri eta oinarri den heinean. Epai horrekin hein batean onetsi zen Tomás Mena García jaunak jarritako 203/2006 errekurtsioa.

Epai horren aurka kasazio errekurtsioa jarri da Auzitegi Gorenean. Hala ere, Mena García jaunak epaia behin-behinekoz betearaztea eskatu zuen, eta Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Salak, 2007ko maiatzaren 14ko autoaren bidez –irailaren 4ko auto batek berretsi egin du–, eskaria onetsi zuen.

Horiek horrela, hona ERABAKIA:

1. Harik eta ebatzi arte Nafarroako Auzitegi Nagusiaren otsailaren 13ko 77/2007 epaiari Auzitegi Gorenean aurkeztutako kasazio errekurtsioa, indarrik gabe geldituko da, behin-behinekoz, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduko 2. artikuluko 3. idatz-zatia, 2006ko otsailaren 6ko Mahaiaren Erabakiaz onetsi zen testua hain zuzen (10. NPAO, 2006ko otsailaren 13koa), bai eta 2. artikuluko 1. idatz-zatia ere, aurretik aipatuaren aurrekari, euskarri eta oinarri den heinean.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda